



## AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 16. artikulua araber, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian xedatutakoa aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da irakaskuntza, bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, modalitate eta espezialitate orotan, kalterik egin gabe Konstituzioaren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoak, haren 149.1.30 artikulua Estatuari esleitzen dizkion ahalmenei eta hori betetzeko eta bermatzeko beharrezko den goi-ikuskaritzari.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, abenduaren 28ko 48/2020 Dekretuak aldatutakoak, Hezkuntza Sailaren esku uzten ditu, 10.1 artikuluan, araubide orokorreko zein bereziko irakaskuntzei dagokienez autonomia-estatututik eratorritako ahalmeneak, eta bere barne hartzen ditu ikaskuntzari eta hezkuntzari lotutako etapa eta maila guztietako kualifikazioak, bai eta horien eskuratzeari eta hezkuntzari lotutako goi-mailako jarduerak ere.

Eskumen hori baliatuz, Hezkuntza sail honek egokitzen eta bidezkoztatzen jo du Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen aurreproiektua egitea.

Izan ere, euskal hezkuntza-sistemak hainbat eta hainbat erronka eta eraldaketari egin behar die aurre datozen hamarkadetan. Halaber, gaur egun ere, inguruko aldaketak direla eta, komenigarri ikusten da berehalako neurriak hartzea, hezkuntza-eredu inklusiboa babesteko, gero eta digitalizazio altuagora egokitzeko, eta errealitate eleaniztun horretan euskara sistemaren ardatza izateko. Horretarako, besteak beste, berrikuntzaren, ebaluazioaren eta etengabeko hobekuntzaren alde egin beharra dago, bai eta gizarte parte-hartzaile eta jasangarriago baten alde, hezkuntza-eredu oso kualifikatu eta lehiakorra sustatuz. Era berean, kontuan hartu behar da ikasleen artean gero eta aniztasun handiagoa dagoela, eta joera hori hazten joango dela ziurrenik urteen poderioz. Erronka horiek direla-eta, beharrezkoa da bizikidetzaren positiboa, tolerantzia-balioak eta ekitatearen eta bikaintasunaren alde egingo duen hezkuntza-sistema bat ezartzea, inklusioa, gizarte-kohesioa eta balio demokratikoen eta pertsonen oinarrizko eskubideen erabateko errespetua alde batera utzi gabe, horiek baitira Europako gizartearen oinarria.

Gaur egungo eta datozen hamarkadetakako erronkei erantzuteko ezinbestekoa da berrikuntza eta hezkuntza-prozesuari aplikatu dakizkiokeen ekarpen zientifikoak aintzat hartzea; ikusmiran izatea beren ikaskuntzaren subjektu aktibo diren ikasle ahaldunduak, hala nola, ikasleak gidatzen eta laguntzen dituzten eta komunitatean ikasten duten familia eta irakasleak; hezkuntza formaleko eta ez-formaleko eskola antolakuntza bat eratzea, beren hezkuntza- eta komunitate-proiektua, espazio fisiko berrietan, eta beren ingurune soziokultural eta instituzionalarekin elkarrekintzan kudeatzen duten ikastetxe ahaldunduekin; euskal hezkuntza-sistemaren gobernantza eredu berri bat ezartzea, erantzunkidea, elkarlanean egina, deszentralizatu eta udalerrilurralde- eta autonomia-mailan egituratua; hori guztia, hezkuntza-sistema inklusiboa bermatzeko.

Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ  
Telf. 945 01 84 35 - [huisajuri@euskadi.eus](mailto:huisajuri@euskadi.eus)





Ildo horretan, Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legeak, hogeita bost urte baino gehiago daramatza indarrean, eta, beraz, ordutik hona gizartean, pedagogian, teknologian eta ekonomian izan diren aldaketa sakonak kontuan hartuta, lege berri bat idazteko beharra ikusi da.

Horrez gain, adierazi behar da, 2021eko urriaren 14an, Eusko Legebiltzarrak erabaki zuela ponentzia bat eratzea Hezkuntza Batzordearen esparruan, etorkizuneko euskal hezkuntza-sistemari buruzko akordio zabal bat lortzeko oinarriak zehaztu ahal izateko. Ponentzia horretan, besteak beste, adituek, gizarte-eragileek eta Administrazioetako arduradunek parte hartu dute. Adostutako txostena Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailera bidaliko da, etorkizuneko Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen oinarria izan dadin.

Lege-aurreproiektua egin eta izapidetzeko prozedurak Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 legean jasotako aginduak bete beharko ditu.

Aipatutako 8/2003 Legeak 4.1 artikuluan ezartzen duenez, *Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da.*

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta hasteko aginduak bete beharreko edukia zehazten duen abenduaren 22ko 8/2003 legearen 5.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau

## **EBAZTEN DUT**

### **Lehenengoa.- Xedea.**

Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea.

### **Bigarrena.- Arauaren xedea eta helburua. Proposatutako erregulazioaren edukia.**

Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza Lege-aurreproiektuaren xedea da balio eta printzipioetan oinarritutako araudi bat ezartzea, hargatik eragotzi gabe, aldaketa azkar eta etengabeak gertatzen ari diren garai honetan, beharrezkoak diren eta, irauteko eta egonkortasun bokazioa duten arauak txertatzea.

Ikaslea ikaskuntza-prozesuaren helburu eta protagonista gisa kokatu nahi da. Ikaslea bera, bizitza pertsonal eta sozial oso bat garatzeko, eta etorkizun konplexu eta ziurgabe honetan, gizarte kohesionatu eta solidarioa eraikitzeko ahalik eta ondoen prestatzea.

Era berean, euskal hezkuntza-sistemaren kalitatea areagotu nahi da, bikaintasunerantz. Horretarako, ekitatea, gizarte-kohesioa, balioetan oinarritutako hezkuntza, pentsamendu eta sinesmen askatasunarekiko eta aniztasunarekiko errespetua, giza eskubideen errespetua eta aniztasunaren defentsa sustatu nahi dira. Bide horretan, kultura zientifikoa eta giza-zientziak uztartzen dituen hezkuntza-eredua bultzatu nahi da, eta eredu horren osagarri, jasangarritasun ikuspegitik, ikasleei errealitatearen ikuspegi kritiko eta eraldatzailea eskainiko diona.



Horrez gain, ezinbestekotzat jotzen da bizikidetzaren aldeko apustua egitea, eskola anitzaren oinarria den aldetik; apustu horrek dakar, ikasleak ikastetxeen sarbiderako berme-mekanismoak ezartzea, eskolatzeko inklusiboagoa eta orekatuagoa ere egitea, gizarte-kohesionatuagoa lortzeko.

Halaber, sistema eleaniztun eta kulturartekoa bultzatu nahi da, kalitatezko proiektzioa izango duena, berdintasunezkoa, inklusiboa eta berritzailea, betiere, euskara eta euskal kultura ardatz hartuta.

Ebaluaziorako esparru propioa eraiki nahi da, ikuspegi integrala garatzeko; izan ere, prozesu konplexua eta faktore anitzekoa da, ikasleak, irakasleak, curriculum, zuzendaritzak, ikastetxea, familiak, komunitatea eta hezkuntza-sistema barne hartzen dituena, eta autoebaluazioaren eta kanpo-ebaluazioen arteko osagarritasuna bilatzen duena.

Hezkuntza-erakundeek gero eta autonomia gehiago izatea bilatzen da. Hezkuntza-proiektuek behar duten lidergo pedagogikoaren autonomia eta hezkuntza-proiektua kudeatu eta hezkuntza-komunitatearen parte-hartze demokratikoa ahalbidetzeko autonomia.

Eta azkenik, gobernantza-eredu berria ezartzea, lankidetzakoa, erantzunkidea deszentralizatua eta udalerrri-, lurralde- eta autonomia-mailan egituratua.

### **Hirugarrena.- Arauaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

#### Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena

Egin nahi den lege-aurreproiektua, hasiera batean, bideragarria da juridikoki eta materialki; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena da irakaskuntza, bere luze-zabalean, maila eta gradu guztietan, modalitate eta espezialitate orotan, Estatutuaren 16. artikulua araberak, hargatik eragotzi gabe Konstituzioaren 27. artikulua eta bera gara dezaten lege organikoak, Konstituzioaren 149.1.30 artikulua Estatuari aitortzen dizkion ahalmenak eta hori betetzeko eta bermatzeko beharrezkoa den goi-ikuskaritza.

#### Eskumen organikoa

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, abenduaren 28ko 48/2020 Dekretuak aldatutakoak, Hezkuntza Sailaren esku uzten ditu, 10.1 artikuluan, araubide orokorreko zein bereziko irakaskuntzei dagokienez autonomia-estatututik eratortzen diren ahalmenak, eta barne hartzen ditu ikaskuntzari eta hezkuntzari lotutako etapa eta maila guztietako kualifikazioak, bai eta horien eskuratzeari eta hezkuntzari lotutako goi-mailako jarduerak ere.

#### Eskumen funtzionala.

Bestalde, otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, Hezkuntzako sailburuari dagokio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak baliatzea, bai eta sailari dagozkion egitekoen eta jardun-arloen esparruan indarrean dagoen legeriak esleitzen dizkion gainerako eskumenak ere, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuarekin bat etorriz, eta beste ezein organori atxikita ez dauden heinean.



### **Laugarrena.- Ordenamendu juridikoan izango duen eragina.**

Proiektatutako legea indarrean jartzeak Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legea indargabetzea ekarriko du.

Halaber, legea indarrean sartzean, indargabetuta geratuko dira legean xedatutakoaren aurkako maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Lege-aurreproiektuaren xedea kontuan hartuta, aurreikustekoa da, gerora, araua garatzeko erregelamendu-arauak onartu beharko direla.

### **Bosgarrena.- Ekonomian eta aurrekontuetan izango duen eragina.**

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, eta bertan aztertuko da etorkizuneko arauaren kostuaren zenbatespena eta araua aplikatzeak EAeko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina. Halaber, memoria horretan aztertuko da arauak beste administrazio batzuetan eta partikularretan duen eragina, baita ekonomian oro har duena ere.

### **Seigarrena.- Egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.**

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera, prozedura hasteko aginduan adieraziko dira gaiaren arabera egoki iritzitako izapideak eta txostenak.

Lege-aurreproiektuaren testua idazteko, agindu honetan xedatutakoa hartuko da oinarritzat, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara hobekien egokitzen diren aukera guztiak, eta, hala badagokio, aurreikusitako araudiaren egokitasuna eta legezotasuna bermatzeko egingo diren txosten eta kontsulten emaitzak ere.

Aipatutako araudian xedatutakoa betez, hasiera batean lege hau egin eta onartzeko behar diren izapide eta txostenak adieraziko dira:

1. Hasteko agindu hau eman aurretik, xedapen orokorrak egiteko prozedura izapidetzeko jarraibideak onartzen dituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren erabakiaren bidez, **aldez aurreko kontsulta-izapidea** erabaki zen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133 artikulua 1. apartatuan xedatutakoa betetzeko, zehazki, herritarrekin duen interakzio-izapideari bidea emateko, zeina arau-testu juridiko zehatz bat onartu aurretik egin behar den.

Izapide hori Aurrekoa kontutan izanda, hasteko agindu hau eman aurretik, Hezkuntzako Sailburuaren 2021eko irailaren 17ko Aginduaren bidez egin da, aurretiko kontsulta-izapidea egin da. Agindu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu, eta hogeita egun balioduneko epea eman zen ekarpenak aurkezteko. Era berean, aurretiazko kontsultaren izapide honetan argitaratutako informazioa gobernu irekiaren plataforman – Irekia – eta Legegunean argitaratu da, herritarrek Administrazioaren jardueraren berri izan dezaten eta iritziak eman ditzaten.

Espedientean, aipatutako **memoria ekonomikoaz** gain, arauaren beharrezana, egokitasuna eta xedea **justifikatzeko memoria** ere jaso beharko da.



Aurreproiektua idaztearekin batera, **generoaren arabera eraginari buruzko txostena** egingo da, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Erabakiarekin bat etorriz, *genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko*.

Era berean, espedienteari txosten bat gehituko zaio, honako hau betez: **Haurrak eta Nerabeak Babesteko** Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legea, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari 22 quinquies artikulua gehitzen baitio, eduki honekin: *Lege-aurreproiektuekin eta araudi-proiektuekin batera aurkeztu behar duten araudi-eraginaren analisiari buruzko memoriak araudiak haurtzaroan eta nerabezaroan duen eragina jasoko dute. Gainera, Arauek familian duten eragina izeneko hamargarren xedapen gehigarria gehitzen dio Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeari, eta honako hau ezartzen du: *Lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren araudi-inpaktuaren azterketen memoriak araudiak familiengan duen inpaktua jaso beharko dute.**

2. Behin idatzi ondoren, Lege-aurreproiektuak, Hezkuntza Sailburuaren **aldez aurreko onarpena** jaso beharko du.

3. Lege-aurreproiektua aldez aurretik onartu ondoren, testua **Eusko Legebiltzarrerara bidali** beharko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikulua aplikatuz –ekainaren 2ko 8/2016 Legeak, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duenak, emandako idazketaren arabera–, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten.

4. Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzak Lege-aurreproiektuari buruzko **txosten juridikoa** egingo du. Txosten horretan, aurreproiektuaren funts objektiboa aztertuko du, bai eta edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren eta araugintza-teknikaren jarraibideak betetzen dituen ere, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 10.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

5. Hasteko Agindua, aldez aurretik onartzeko Agindua eta Lege-proiektua **Legesarea** lankidetzaren gunean argitaratuko dira.

6. Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 9. artikuluan ezarri denaren arabera, lege-aurreproiektua Jaurlaritzako sailei helaraziko zaie, **parte har dezaten eta kontsulta egiteko**. Era berean, testua beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsultatzeko izapidearen mende jarriko da.

7. Beharrezkotzat jotzen dira **jendaurreko informazioaren eta entzunaldiaren izapidea** Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

8. Arau-xedapenak egiteko indarrean dagoen prozeduraren arabera, beharrezkotzat, nahitaez kotzat eta/edo komenigarritzat jotzen dira, besteak beste, kontsulta-organoen **txosten eta irizpen** hauek:

- ✓ Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako **Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena**, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura



organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuaren 14.2.1) artikuluan ezarritakoaren arabera, bai eta azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera ere (233/2012 Dekretua, euskararen erabileraren normalizazioaren araubidea ezartzeko duena).

- ✓ **Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena**, Euskadiko Eskola Kontseiluari buruzko 13/1988 Legearen 14. artikuluko a) eta b) idatz-zatien arabera.
- ✓ **Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena**, arauak generoaren arabera duen eraginaren ebaluazioari buruzkoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- ✓ **Enpresetan duen eraginari buruzko txostena**, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoaren arabera. Artikulu horren arabera, “1. Euskal Autonomia Erkidegoak sustatutako edozein arauketa edo arau berri bideratu aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere zerbitzu juridikoen bidez ebaluazio-txostena egingo du enpresak sortzearen, abian jartzearen eta haien funtzionamenduaren gaineko eraginari buruz”, eta txosten hori nahitaezkoa da xedapen orokorrak egiteko prozeduran.
- ✓ **Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena**, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.5 artikuluen arabera.
- ✓ **Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena**, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 91.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- ✓ **Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena**, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.
- ✓ **Kooperatiben Goren Kontseiluaren txostena**, Euskadiko Kooperatiben abenduaren 20ko 11/2019 Legearen 165.2b) artikuluen arabera.
- ✓ **Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena**, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzkoa, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.
- ✓ **Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena**, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esparru horretan, eta Jaurlaritzaren Legearen 56.2 artikuluan xedatutakoa betez – ekainaren 2ko 8/2016 Legeak, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duenak, emandako idazkeraren arabera–, *Aholku Batzorde Juridikoari igortzen zaion dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrari ere igorriko zaio, legebiltzar-taldeen hori ezagut dezaten.*



9. Halaber, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean xedatutakoaren arabera, **Legegunean** argitaratuko da, lege horretan xedatutako publikizitate-agindua betetzeko eta proiektuaren testua euskaraz eta gaztelaniaz argitaratzeko.

10. Lege-proiektuaren izapideak bukatuta, eta Gobernu Kontseiluak araua onartu baino lehen, prozedura osoaren **memoria laburra** prestatuko da. Memoria horretan aurrekariak eta egindako izapideak jasoko dira, 8/2003 Legearen 10.2 artikulua ezarritakoa betez.

### **Zazpigarrena.- Europar Batasunaren aurreko izapideak.**

Ez da ikusten Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egin behar denik.

### **Zortzigarrena.- Idazketa-sistema.**

Aurreproiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Erabaki horren bidez, Lege, Legegintzako Dekretu, Dekretu edo Aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dira.

Horretarako, eta aldez aurretik onartu beharreko testuaren euskarazko bertsioaren eta gaztelaniazko bertsioaren arteko zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) itzulpena izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzea xedatzen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin bat etorritik.

### **Bederatzigarrena.- Hasteko agindu hau bidaltzea.**

Agindu hau Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzara bidaliko da, lege-aurreproiektua egin eta aipatutako prozedura izapidetu dadin.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan

Hezkuntza Sailburua

JOKIN BILDARRATZ SORRON